

ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

"Nire planetarik gogokoena:
bidaia bat STEM
bokazio-espaziora"

Jarduera-zk.: 7

B(t)
Bizkaia with the talent



Ikaskuntza-egoera

Testuingurua:

Ikastetxeak lankidetzan berezi bati ekin dio DBHko 3. eta 4. mailako ikasleekin, "Nire planetarik gogokoena: bidaia bat STEM bokazio-espaziora" jarduera gauzatzeko. Misio horren xedea da ikasleei murgiltze-esperientzia bat eskaintzea, alegiazko espazio-bidaia baten bidez STEM lanbideak esplora ditzaten. Europako Espazio Agentziaren (ESA) gonbidapen berezi bati esker, ikastetxeak aukera ematen die ikasleei STEM lanbideak modu berdingabe eta zirrargarrian esploratzeko.

Abiapuntua:

Ikastetxeak, Europako Espazio Agentziaren (ESA) gonbidapen berezi bati esker, gogotsu iragarri du jarduera hau: "Nire planetarik gogokoena: bidaia bat STEM bokazio-espaziora".

DBHko 3. eta 4. mailako ikasleentzat bereziki diseinatutako jarduera honek bidaia espazial bat egitera gonbidatzen ditu ikasle horiek. Bidaia horretan, zenbait STEM eremutako profesional sutsu eta grinatsuak bizi diren planetak bisitatuko dituzte. Erronka honek bokazio-esploraziorako aukera bat baino zerbait gehiago izan nahi du; katalizatzaile bat izan nahi du ikasleak irudimenaz eta ikerketaz balia daitezen beren interesak hobeto ulertzeko eta etorkizuneko karrera aukeratzen laguntzeko.



Helburuak:

1. Ikasleek STEM eskaintza profesionalen aukera ezagutzea.
2. Atentziora eman dieten STEM lanbideei buruzko zalantzak identifikatzea eta argitzea.
3. STEM lanbideetan diharduten kanpoko edo familia-inguruneko profesionalak aurrez aurre ezagutzea.
4. STEM profesionalekin haien lan-esperientziari buruz hitz egiteko aukera izatea.

Funtsezko gaitasunak:

GAITASUN PERTSONALA, SOZIALA
ETA IKASTEN IKASTEKOA (GPSII)
GAITASUN DIGITALA (GD)
HERRITARTASUNERAKO GAITASUNA
(HG)

Deskriptore operatiboak:

GPSII1; GPSII3; GPSII4; GPSII5; GD3; HG1



Jardueraren deskribapena:

1

1. FASEA: Talde-esplorazioa (20 minutu) Sarrera (5 minutu):

Gidariak ongietorria emango die ikasleei, eta misio paregabe bati ekitera gonbidatuko ditu. Azalduko die ezen, xede horretarako, espazio-ontzi bat diseinatu dela STEM lanbideen mundu liluragarriak esplora ditzaten. Gainera, bisitatuko duten planeta bakoitzean gure unibertsoa garatzen laguntzen duten profesional sutsuak bizi dira. Gidariak planetak aurkeztuko dizkie ikasleei. Hauek dira: Bizitza, Zientzia, Eraikuntza, Energia, Mundu Digitala eta Makinak.

Ondoren, misioa zein den azalduko die. Ikasleek misio hori onartzea erabakitzen badute, honako hau aurkitu beharko dute: zein planetatan gustatuko litzaiekeen bizitzea eta profesionalki garatzea. Gidariak galdera honekin animatuko ditu ikasleak: "Prest al zaudete aireratzeko?"

2

Galderen dinamika (10 minutu):

Gidaria zenbait lanbiderekin lotutako galderak irakurtzen hasiko da (adibidez: erizaintza, odontologia, bioingeniaritza, etab.).



ERANSKINA: [Galderen biltegia](#)

ERANSKINA: [Planeten txartelak](#)

Erantzunen arabera, ikasleek beren intereseko lanbideei dagozkien planeten izenak dituzten txartelak jasoko dituzte. Hona hemen galdera horietako bat: "Gustatuko litzaizuke zure lanean jendeari sendatzen laguntzea eta mediku-taldeetan lankidetzan aritzea?" (Erantzuna baiezkoa bada, Bizitza planetari dagokion txartela emango zaio ikasleari).

3

Taldeak osatzea (5 minutu):



Ikasleek aukeratutako planetetan oinarrituta, taldeak osatuko dira. Oharra: Ikasle batek planeta bat baino gehiagoren txartelak baditu, zein planetaren txartel gehien dituen, hura bisitatzea gomendatuko zaio.

3

ETxartel-kopuru berdina badu, libreki aukeratu dezala zein planeta bisitatu nahi duen lehendabizi. Gainerako planetak etxetik esploratzeko ere esan diezaiokegu.

Hurrengo faserako, komeni da ikasgelatik kanpoko zenbait espazio antolatzea. Espazio horietako bakoitzari planeta jakin bat esleituko zaio.

2. FASEA: Profesionalen aurkezpena eta nabigazioa (30 minutu)



Fase honetan, ikasleek STEM PROFESIONAKAK ezagutzeko aukera izango dute. Esperientzia dinamikoagoa eta dibertigarriagoa izan dadin, aukera hauek eskaintzen dira:

Asmatu zein den nire lanbidea (15 minutu):

1. aukera: Profesional bakoitzak bere lanari buruzko pasadizo edo datu bitxi bat kontatuko du, bere lanbidea zuzenean ezagutarazi gabe, eta ikasleek zein lanbide den asmatu beharko dute.



ERANSKINA: [Profesionalentzako jarraibideak](#)

ERANSKINA: [Bigarren Hezkuntzako ikasleekin aritzeko iradokizunak](#)

2. aukera: Profesional bakoitzak bere lanbideari buruzko aurkezpen interaktiboa egingo du; horretarako, bere lanarekin zerikusi duen objektu bat erakutsiko du. Objektu horrek zer erabilera eta zer garrantzi dituen azalduko du, baita beraren lanak eguneroko bizitzan duen eragina nola islatzen duen ere. Berak zer lanbide duen asmatzera gonbidatuko ditu ikasleak.



ERANSKINA: [Aurkezpen interaktiborako gida](#)

ERANSKINA: [Bigarren hezkuntzako ikasleekin elkarreragiteko iradokizunak](#)

4

Lanbideetan zehar nabigatzea (15 minutu)

Ikasleei esango zaie hautatu duten planetako lanbideei buruzko informazio-fitxak dauden orrialdean ireki dezatela proiektua. Jarduera hori banaka, bikoteka edo talde txikitik egingo dute (horretarako, bikotekideen edo taldekideen erantzunek bat etorri behar dute). Gidaria eta planeta bakoitzeko profesionalak prest egongo dira beren lan-esperientzia partekatze, galderei erantzuteko eta fitxetan jasotako edozein informazio argitze.

5

Gainera, nabigazioa gidatua izan dadin, arduradunak zenbait galdera egituratu emango dizkie ikasleei. Galdera horiek lagungarriak izango zaizkie ikasleei hautatu dituzten planetako lanbideen informazio-fitxetan nabigatzeko.

Hona hemen galdera horietako zenbait:

- Zein dira lanbide honen erantzukizun nagusiak?
- Zer trebetasun edo ezagutza behar dira lanbide honetan aritzeko?
- Non egin ohi dute lan arlo honetako profesionalek?
- Zer ekarpen egiten dio lanbide honek gizarteari?
- Zer aukera eskaintzen ditu karrera honek etorkizunerako?

Konpromisoa eta ikerketa-proiektua

Planetak esploratu eta STEM profesionalekin hizketan jardun ondoren, ikasleei konpromiso pertsonal bat proposatuko zaie, gehien interesatu zaien lanbidean sakondu dezaten. Urrats honek bokaziozko jarraitutasuna sustatzen du bokaziozko aurkikuntzaren prozesuan, eta hautatutako lanbide bati buruzko ikerketa eta gogoeta zehatzagoa egitera gonbidatzen ditu ikasleak.

Jarraibideak:

- **Konpromiso pertsonala:** Jardueraren arduradunak gonbita egingo die ikasleei jardueran aukeratu zuten STEM lanbideetako bat sakonago ikertzeko konpromisoa har dezaten. Konpromiso hori banakakoa izango da, baina jarduera talde txikitan egin ahal izango da, baldin eta zenbait ikaskidek lanbide berarekiko interesa badute.

Arduradunak, hausnarketarako galdera baten bidez, konpromisorako motibazioa piztuko die ikasleei: "Orain, zenbait planeta esploratu dituzuenean, zein lanbidek eman dizue atentziorik handiena eta zein lanbide ikertu nahiko zenukete sakonkiago? Hartu pare bat minutu horri buruz gogoeta egiteko eta lanbide bat aukeratzeko".

Horren ondoren, beren hautua eta lanbide hori ikertzeko arrazoi labur bat idazteko eskatuko zaie

- **Ikerketa-proiektua:** ikasleak, banaka edo talde txikitan, ikerketa-proiektu bat garatzen hasiko dira. Saiotik kanpo jarraitu ahal izango dute lan hori egiten. Proiektuak alderdi hauek jaso behar ditu:

- Hezkuntza-eskakizunak: Aukeratutako lanbidean sartzeko zer prestakuntza mota behar den identifikatzea (ikastaroak, unibertsitate-ikasketak, ziurtagiriak, etab.).
- Lan-aukerak: Lanbide horrekin non lan egin daitekeen, zer rol dauden eta lan-merkatua nolakoa den ikertzea.
- Eragina gizartean: Lanbide horrek berrikuntzaren, zientziaren edo bizi-kalitatearen hobekuntzaren bidez gizartearen garapenari zer ekarpen egiten dion hausnartzea.
- Proiektu hori geroagoko **tutoretza-saioretan** entregatu eta berrikusiko da. Ikasleek feedbacka jasoko dute, beren ikerketan are gehiago sakondu dezaten. Proiektua egiteko eskura dituzten baliabideak (proiektuaren plataforma, profesionalekiko elkarrizketak, bibliografia) erabiltzera motibatuko ditugu.

Aberaste-jarduera: Ikasleek beren ikerketa amaitu ondoren, taldekako bateratze-lan bat egingo da. Arduradunak zenbait galdera egingo ditu, ikasleei gogoeta egiten eta aurkitutakoa partekatzen laguntzeko.

Ikasle edo talde bakoitzak gainerako ikaskideekin partekatuko ditu bere gogoetak, eta, hartara, zenbait STEM lanbide eta arlo konparatu ahal izango dira. Horrela, ikasleek aukera izango dute hasieran aukeratu ez zituzten beste karrera batzuei buruz entzuteko, eta beren ezagutza zabaltzeko.




Baliabideak:

- Espazioak
- Ordenagailuak
- Wifi-konexioa
- Plataforma digitala

Jarduera gauzatzeko gomendioak



Ziurtatu badagoela Interneterako konexioa, ikasleak proiektuaren plataformara sartu ahal izateko..



Aldez aurretik erreserbatu eta antolatu ikasgelatik kanpoko espazioak.



Inprimatu planeten txartelak eta ziurtatu nahikoak dituzula.



Aldez aurretik, gonbidatu profesionalak eta senideak, parte har dezaten eta planeta bakoitzean ikasleak gida ditzaten. Gainera, banatu ezazu jardueran erabiliko den informazioa (partekatu profesionalentzako dokumentuak:



[DBHko ikasleekin aritzeko iradokizunak](#),

[Zure esku-hartzea gauzatzeko urratsak](#)

[Aurkezpen interaktiborako gida](#)

Gutxi gorabeherako denbora:

50 minutu

Ebaluatzeko errubrika

Irizpideak	Bikain 4	Ongi 3	Onargarria 2	Hobetu egin behar du 1
STEM materialaren berrikuspenean parte hartzea	Arretaz aztertzen du STEM lanbideei buruzko material guztia, eta hasierako ulermen argia erakusten du.	STEM lanbideei buruzko material gehiena berrikusten du, eta hasierako ulermen egokia erakusten du.	STEM lanbideei buruzko materialaren zati bat berrikusten du, eta oinarrizko hasierako ulermena erakusten du.	Gutxi aztertzen du edo batere ez du aztertzen STEM lanbideei buruzko materiala, eta hasierako ulermen mugatua erakusten du.
STEM lanbideei buruzko zalantzak identifikatzea eta argitzea	STEM lanbideei buruz dituen zalantza guztiak zehazki identifikatzen eta argitzen ditu.	STEM lanbideei buruz dituen zalantza gehienak identifikatzen eta argitzen ditu.	STEM lanbideei buruz dituen zenbait zalantza identifikatzen eta argitzen ditu.	Ez ditu identifikatzen eta ez ditu argitzen STEM lanbideei buruz dituen zalantzak.
Profesionalekiko interakzioa	Profesionalekin modu aktiboan aritzen da; galdera esanguratsuak egiten ditu, eta interesa agertzen du.	Profesionalekin aritzen da; zenbait galdera egiten ditu, eta interesa agertzen du.	Profesionalekin modu mugatuan aritzen da; galdera gutxi egiten ditu.	Profesionalekin oso gutxi aritzen da edo batere ez; interes urria erakusten du.
Jardueran parte hartzea eta taldean eztabaidatzea	Gogotsu parte hartzen du jarduera guztietan, eta ekarpen nabarmena egiten du taldeko eztabaidan.	Aktiboki parte hartzen du jarduera gehienetan, eta ekarpena egiten du taldeko eztabaidan.	Jardueretan parte hartzen du, eta ekarpen txiki bat egiten du taldeko eztabaidan.	Jardueretan modu pasiboan parte hartzen du, eta ez du ekarpenik egiten taldeko eztabaidan.

ACTIVIDADES PARA PERSONAS ORIENTADORAS

"Nire planetarik gogokoena: bidaia bat STEM bokazio-espaziora"

Jarduera-zk.: 8

B(t)
Bizkaia with the talent









ACTIVIDADES PARA PERSONAS ORIENTADORAS

ANEXOS

B(t)
Bizkaia with the talent



Lanbidea	Galdera (MAKINAK)
Makinen programazioa eta automatizazioa	Nori gustatuko litzaioke makinei lan egiten irakastea, zuek nahi dituzuen zereginak bete ditzaten?
Garraioen diseinua	Nori gustatuko litzaioke Pogacarren bizikleta berria diseinatzea? Eta etorkizuneko autoak? Eta oportretan zuen "adiskide" guztiekin Europan zehar ibiltzeko autobus bat?
Diseinu industriala	Nori gustatzen zaio bere asmakizunak imajinatzea eta marraztea?
Diseinu mekanikoa	Nori gustatzen zaio makinen barne-funtzionamendua ikastearen ideia? (engranajeak, motorrak...)
Elektrizitatea-elektronika	Nori gustatuko litzaioke mugikorra, ordenagailua edo zuen etxeetan hondatu den edozein etxetresna elektriko konpontzen jakitea?
Garraioen fabrikazioa	Gustatuko litzaizuke matxuratu zaizun autoa konpontzeko tresnak erabiltzen ikastea? Nori gustatuko litzaioke jakitea auto elektrikoak nola fabrikatzen diren, horretarako zer material erabiltzen diren, eta nola funtzionatzen duten?
Fabrikazio mekanikoa	Nori gustatzen zaio objektuak muntatzea eta desmuntatzea barrutik nola eraikita dauden ikusteko? Nori gustatzen zaio jostailuak, altzariak eta maketak muntatzeko jarraibideak betetzea? Nori gustatuko litzaioke tailer mekaniko bat bisitatzea?
Materialak	Nori gustatzen zaio materialekin esperimentatzea haien portaera ikusteko? Nori gustatuko litzaioke material berriak ikertu eta garatzen diren laborategi batean lan egitea?
Programazioa eta automatizazioa	Nork du gustuko robotikako lehiaketetan parte hartzea? Gustatzen zaizu Scratchekin programatzea jolasak eta animazioak sortzeko?

Profesión	Galdera (ENERGIA)
Energia-efizientzia	<p>Nor kezkatzen du ingurumenak? Nork optimizatu nahiko luke energia-kontsumoa ingurumen-inpaktua minimizatzeko?</p> <p>Bizi zaren etxearen energia-efizientzia ebaluatu nahiko zenuke? Eta zure eskolarena?</p> <p>Nori gustatuko litzaioke kanpaina bat prestatzea bere auzoan energia aurrezteari buruz sentsibilizatzeko?</p>
Energia berriztagarriak	<p>Atsegin duzu etorkizun jasangarriagoa eraikitzearen ideia?</p> <p>Atsegin duzu jakitea nola aprobeitza daitekeen eguzkiaren, haizearen, itsasoaren eta luraren energia elektrizitatea eta beroa sortzeko?</p>
Ekipo eta sare elektrikoak	<p>Gustatzen zaizu kable, etengailu eta ekipo elektrikoekin lan egitearen ideia?</p>
Ingurumen-espezialista	<p>Nori gustatzen zaio izugarri animaliei, landareei eta planetako ekosistemei buruz ikastea?</p> <p>Nork parte hartu du noizbait zuhaitzak landatzeko, ibaien ibilguak garbitzeko edo hondartzak garbitzeko jardunaldietan?</p> <p>Nork atsegin du aire zabalean lan egitea, eta naturan denbora pasatzea, bizitza bere egoera naturalean behatuz?</p>
Fenomeno naturalak	<p>Nori gustatzen zaio izugarri sumendiek, lurrikarek eta beste fenomeno natural batzuek nola funtzionatzen duten ulertzea?</p> <p>Ekaitzak, urakanak eta tornadoak nola gertatzen diren jakin nahiko zenuke?</p> <p>Gustatuko litzaizuke zerua behatzea eta unibertsoa osatzen duten konstelazioak eta zeruko beste zenbait gorputz ezagutzea?</p>

Profesión	Galdera (ZIENTZIA)
Biomaterialak	<p>Nork atsegin du protesi eta inplanteetan erabil daitezkeen materialak ikertzearen ideia?</p> <p>Material berriek giza gorputzarekin nolako interakzioa duten ikertzea gustatzen zaizu?</p> <p>Gustatuko litzaizuke ehunak eta organoak birsortzen lan egitea?</p>
Fluidoek mekanika	<p>Nori interesatzen zaio aireontzien eta suzirien diseinu eta analisi aerodinamikoaren arloan lan egitea? Eta itsasontzien eta itsaspekoen hidrodinamikaren arloan?</p> <p>Nori gustatzen zaio egungo erronkei aurre egiteko matematika, fisika, ingeniariak eta materialen zientziak uztartzearen ideia?</p> <p>Nola ulertu ahalko zenuke hobeto fenomeno atmosferikoen iragarpena?</p>
Optika	<p>Interesatzen zaizu zuntz optikoek, laserrek eta errealitate birtualeko sistemek nola funtzionatzen duten jakitea?</p> <p>Badakizu nola diseinatzen diren betaurrekoak, ukipen-lenteak eta argiztapen-sistemak?</p>
Optometria	<p>Interesatzen zaizu zure begiak nola zaindu jakitea? Eta begiaren anatomia eta funtzioa ezagutzea?</p> <p>Badakizu nola zuzendu daitezkeen ikusmen-arazoak?</p>
Kimika	<p>Gustatuko litzaizuke laborategi batean lan egitea substantzia kimikoak analizatu eta sintetizatzeko?</p> <p>Gustatuko litzaizuke esperimenduak egitea eta aurkitzea nola eragiten dioten elkarri substantziek beren artean molekula berriak sortzeko?</p> <p>Gustatuko litzaizuke material, sendagai edo elikagai berrien garapenean parte hartzea?</p>
Termodinamika	<p>Nori interesatzen zaio energia-transferentziarekin lotutako problemak ebazten parte hartzea?</p>

Profesión	Preguntas (VIDA)
Odontologia	Interesatuko litzaizuke pertsonen ahoko osasuna hobetzea, tratamendu pertsonalizatuak diseinatzea eta erradiografien eta gisako proben bidezko diagnostikoak egitea?
Bioingeniaritza	Liluratu egiten zaitu osasun-arreta hobetzeko gailu mediko aurreratuak (robot kirurgikoak, irudi bidezko diagnostiko-sistemak, eta abar) diseinatzearen ideiak?
Genetika	Laborategietan geneak eta gene horiek pertsonen osasunean eta ezaugarri hereditarioetan duten eragina ikertzearen ideiak erakartzen zaitu?
Bioteknologia	Gustatuko litzaizuke zientziaz baliatzea sendagaiak egiteko edo landareak hobeto eta osasuntsuago hazten laguntzeko?
Farmazia	Interesatuko litzaizuke farmazia bateko arduraduna izatea, sendagai berrien ikerketan eta garapenean parte hartzea, edo farmazia-produktuen kalitatea bermatzeko lan egitea?
Biologia	Gustatuko litzaizuke ingurumenaren ikerketan eta kontserbazioan lan egitea, biodibertsitatea aztertzea edo prozesu biologiko industrialen hobekuntzan lan egitea?
Biokimika	Interesatzen al zaitu izaki bizidunen erreakzio kimikoak aztertzea gaixotasunak hobeto ulertzeko eta tratamendu eraginkorragoak garatzen laguntzeko?
Elikadura	Izugarri gustatuko litzaizuke elikaduraren bidez jendeari osasuna hobetzen laguntzea, dieta pertsonalizatuak diseinatzea eta elikadura-ohitura osasungarriak sustatzen lan egitea?

Profesión	Pregunta (MUNDO DIGITAL)
Programación	¿Te gustaría crear programas de computadora y desarrollar aplicaciones útiles?
Sistemas Informáticos	¿Te gustaría diseñar y mantener los sistemas que hacen que las computadoras funcionen correctamente
Robótica	¿Te gustaría diseñar y construir robots que puedan hacer tareas automáticamente?
Ciberseguridad	¿Te interesa proteger las computadoras y redes contra hackers y ataques cibernéticos?
Telecomunicaciones	¿Te gustaría trabajar en la transmisión de información, como internet y telefonía móvil?
Big Data	¿Te gustaría analizar grandes cantidades de datos para encontrar patrones y tomar decisiones importantes?

Profesión	Galdera (ERAIKUNTZA)
Eraikuntza eta obra zibila	<p>Gustatuko litzaizuke zubi, eraikin eta errepide berriak eraikitzea? Eta hiri jasangarri eta ekologiko bat diseinatzea?</p> <p>Gustatuko litzaizuke eraikuntzaren munduko makineria espezializatua erabiltzea, hala nola garabiak, hondeamakinak eta hormigoi-makinak?</p>
Domotikako espezialista	<p>Nola txerta ditzakegu sentsore adimendunak zure etxeko erosotasuna, efizientzia eta segurtasuna hobetzeko?</p> <p>Sistema domotikoak garatzeko eta premia bereziak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, adimen artifizialak eta gisako teknologiek erakartzen zaituzte?</p>
Arkitektura	<p>Atsegin duzu alegiazko eraikinak diseinatzea eta marraztea?</p> <p>Gustatuko litzaizuke askotariko estilo arkitektoniko klasiko zein modernoekin espermentatzea?</p> <p>Zure diseinuen bidez munduan aztarna iraunkor bat uztearen ideiak motibatzen zaitu?</p> <p>Gustatuko litzaizuke zure hiriaren diseinurako ekarpena egitea?</p>
Topografia	<p>Gustatuko litzaizuke eraikitzeko erabiliko den lur bateko mapak, planoak eta hiru dimentsioko ereduak sortzea?</p> <p>Ikasi nahi duzu eraikuntza-proiektuak planifikatzeko eta diseinatzeko datu topografikoak erabiltzen?</p> <p>Droneak erabili nahi dituzu irisgarriak ez diren eremuetako datu topografikoak jasotzeko?</p>

Bigarren Hezkuntzako ikasleekin aritzeko iradokizunak

Profesional agurgarria:

Eskerrik asko "Nire planetarik gogokoena: bidaia bat STEM bokaziozko espaziora" jardueran parte hartzeagatik. Zure parte-hartzea funtsezkoa da DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak STEM jardunbideen esplorazioan inspiratzeko eta gidatzeko. Jarraian luzatzen dizugun gidak ikasleekiko esku-hartzea prestatzeko kontuan hartu behar dituzun iradokizunak biltzen ditu.

- 1. Hizkuntza argia eta sinplea:** Erabili hizkuntza erraza, eta saihestu teknizismo konplexuak. Gogoan izan zure arloko termino espezifikokoak ezagutzen ez dituzten nerabeekin hitz egiten ari zarela.
- 2. Interakzio aktiboa:** Galdera irekiak egin ikasleei, haien parte-hartzea eta interesa sustatzeko. Prest egon ikasleen galderei erantzuteko eta zalantzak argitzeko.
- 3. Ikusizkoak eta erakustaldiak:** Erabili ikusizko elementuak (irudiak, diagramak, aurkezpenak) zure azalpena erakargarriagoa izan dadin. Ahal bada, egin zure lanarekin lotutako erakustaldi praktikoko txikiak.
- 4. Lotura emozionala:** Partekatu ikasleen interesekin eta ametsekin bat etor daitezkeen pasadizo pertsonalak eta bizipenak. Animatu ikasleak beren interesen eta ametsen alde lan egin dezaten, eta nabarmendu jarraitasunaren eta jakin-minaren garrantzia.

Aurkezpen baten adibidea: "Kaixo, nire izena Ana García da, eta ingeniari aeroespaziala naiz. Txikitatik, espazioa esploratzea izan da beti nire ametsa, eta gaur egun Europako Espazio Agentzian lan egiteko zortea dut: gure unibertsoa hobeto ulertzen laguntzen diguten sateliteak sortzen laguntzen dut".

Lanbidearen deskribapena: "Nire lana sateliteen eraikuntza diseinatzea eta gainbegiratzea da. Gailu horiek askotariko funtzioak dituzte, hala nola klima iragartzea eta beste planeta batzuk esploratzea".

Ibilbide profesionala: "Hona iristeko, ingeniari aeroespaziala ikasi nuen unibertsitatean. Ikasketetan zehar, praktikak egin nituen teknologiako enpresa batzuetan, eta, graduatu ondoren, zenbait misio espazialeetan lan egin nuen. Urrats horiei esker, egungo egoerara iristeko behar nuen esperientzia bildu nuen."

Eragina eguneroko bizitzan: "Gure lana funtsezkoa da eguneroko bizitzako alderdi askotarako. Esate baterako, gure laguntzarekin eraikitzen diren sateliteek hobeto egiten dituzte aurreikuspen meteorologikoak eta komunikazio globalak; beraz, mundu osoko milioika laguni egiten diogu mesede".

Aurkezpen interaktiborako gida

Profesional bakoitzak bere lanbideari buruzko aurkezpen interaktiboa egingo du; horretarako, bere lanarekin zerikusia duen objektu bat erakutsiko du. Objektu horrek zer erabilera eta zer garrantzi dituen azalduko du, baita beraren lanak eguneroko bizitzan duen eragina nola islatzen duen ere. Berak zer lanbide duen asmatzera gonbidatuko ditu ikasleak.

Jarraibide orokorrak

1. Aurkezpena labur eta luzagarririk gabe egitea.
2. Elementu pertsonalak sartzea, aurkezpena erakargarriagoa eta kontagarriagoa izan dadin.
3. Lanbiderako enblematikoa den eta ikasleengan interesa eta galderak sor ditzakeen objektu bat aukeratzea.
4. Objektu hori zer den, eguneroko lanean zer erabilera duen eta lanbidean zer garrantzi duen azaltzea.
5. Ikasleak lanbidea asmatzera gonbidatzea.

Aurkezpenaren egitura

Sarrera laburra

Aurkeztu zeure burua eta azaldu labur-labur zein den zure lanbidea.

Adibidea: 'Kaixo, Maria naiz, eta jendeari osasuntsu egoten laguntzeko aukera ematen didan lanbide bat dut.'

Erakutsi lanbidearekin zerikusia duen objektua

Erakutsi zure lanarekin lotutako objektu bat, eta utzi ikasleei hura behatzen. Anima itzazu objektu horretan oinarrituta zure lanbidea asmatzera.

Ejemplo: 'Hau estetoskopio bat da. Asmatu al dezakezue zein lanbidetan aritzen naizen objektu honetan oinarrituta?'

Ibilbide profesionala

Deskribatu labur-labur zure karrera lortzeko egin zenuen hezkuntza- eta lanbide-ibilbidea.

Ejemplo: 'Medikuntza Fakultatean ikasi nuen, eta gero ospitale batean egoiliar izan nintzen nire egungo esparruan lanean hasi aurretik.'

Historia pertsonala

Partekatu zure ibilbide profesionalarekin lotutako historia pertsonal labur bat edo pasadizo interesgarri bat, edo zure karrerako une esanguratsu bat.

Ejemplo: 'Jardunbide hau aukeratzea erabaki nuen eskolan gertatutako larrialdi mediko batean lagun bati lagundu ondoren. Bizipen horrek lanbide honetan aritzera bultzatu ninduen.'

Azaldu zer den objektua

Azaldu zer den objektu hori, zer erabilera duen eguneroko lanean, eta zer garrantzi duen zure lanbidean. Zehaztu objektu horrek nola islatzen duen zure lanak eguneroko bizitzan duen eragina.

Ejemplo: 'Estetoskopioa pazienteen bihotz-taupadak eta arnasketa entzuteko erabiltzen dut. Ezinbestekoa da hainbat gaixotasun diagnostikatzeko.'

Zure esku-hartzea gauzatzeko urratsak

Pasadizoak aurkeztea

Profesional bakoitzak bere lanari buruzko pasadizo interesgarri bat edo datu bitxi bat partekatuko du, bere lanbidea aipatu gabe.

Adibidez, "Hiru kontinentetara bidaiatu dut milioika laguni egunero eragiten dieten arazoak konpontzeko."

Igarkizunen erronda

Pasadizoa entzun ondoren, ikasleek talde txikitan eztabaidatuko dute eta profesionalak zer lanbide duen asmatzen saiatzen dira.

Talde bakoitzeko ordezkari batek ikasgela osoarekin partekatuko du bere taldearen ustea.

Lanbidea ezagutzera ematea eta aurkezpen labur bat egitea

Profesionalak bere lanbidea zein den jakinaraziko du eta azalpen labur bat emango du bere jardunbideari, egindako ibilbideari eta bere lanak eguneroko bizitzan duen eraginari buruz.